

LURRALDEKO ETXEEN ARKITEKTURA

EZAGUT EZAZU jostatzuz

Egun on!
Pejo naiz,
zure maketa egiten lagunduko zaitut.
Liburuxka honetako orrialdeetan barna segi
nazazu Baxenabarreko etxe klasiko baten
eraikitzeko:
**zurbesoak dituen
etxea**




Liburuxka honi esker, Baxenabarreko etxe klasiko bat - zurbesoak dituen etxea - eraikiko duzu, apainduko, eta gauza anitz ikasiko.

Ontsa josta zaitez !

1

Hasteko, zurbesoak dituen euskal etxearen patroia eta haren teيلاتukoa bi orritan (A4) inprima itzazu.



2

Aizturak erabiliz, patroiaaren elementuak pika itzazu, puntuzko lerroari ontsa jarraikiz.



3

Zurezko elementu batzuk atzeman itzazu etxearen fatxada nagusian : habeak, euskarri bertikalak...

Zurezko osagai horiek adierazten dute etxea nola eraiki zen.

Zurbesoak dituzten murrak margotutako zur bertikalez eginak dira.

Zur horien artean lur eta lasto nahasketa bat ezartzen zen, gero zuriz estaltzen zena.



Zurbesoak gorritz edo berdez koloreztatu itzazu, hauek baitira Euskal Herriko koloreak.

Arinagoak izanik, zurbesok goiko estaian daude, eta etxe beheko murrak, aldiz, harrizkoak dira.

Leihoak ez dira bortxaz bi mailen artean lerrokatuak. Estaian, zurezko mailen artetik han eta hemen sartzen ziren.



Etxeako leihoak ere koloreztatzen ahal dituzu, kolore bera erabiliz.

4

Orain, fatxadetako bi frisoak har itzazu.
Juntatu behar dituzu etxeko lau murruen osatzeko.
Horretarako, hegiak plega itzazu eta mihiak kola,
elkarri juntatzeko.
Hola, etxeko lau paretak badituzu.



5

Goazen teiltura



Bi isurialdeko etxea
Bi aldeko teiltua
Errektangularra


Etxe horretan,
teiltuak bi alde ditu:
«bi isurialdekoa»
dela erraten da.
Errektangularra da.



Lau isurialdeko etxea
Lau aldeko teiltua
Karratua

Baxenabarren lau isurialdeko etxeak ere aurkitzen dira.
Lau aldeko teiltuak badituzte. Gehienetan, karratuak
izaten dira.

Askotan, erraztasunez, hurbileko ekaiak erabiltzen ziren
etxeen eraikitzeke: egurra, harria, eta teiltuetako teilak
lurrez egiten ziren.
Beraz, Euskal Herriko teiltuak teilazkoak dira.



Teilatuko teilak marraz itzazu.
Gero, teiltua margo ezazu.

Teiltua plegatu eta
murruen hegaletan kola
ezazu.

Zure izena :



Zatoz Baxenabarreko etxeez
gehiago ikastera,
2021eko martxoaren 12tik
maiatzaren 29ra, Irisarriko Ospitalea
Departamenduko Ondare Hezkuntzarako
Zentroak antolatu

« Duplantier-ren marrazkiak :
Baxenabarreko etxeak beste begirada batez »

erakusketaren karietara.



PLUS D'ÉMOTION,
PLUS D'OUVERTURE
CULTURE

Gehiago jakiteko, zure gurasoekin joan zaitezke
« *Les Maisons de Pays* » erakusketaren ikustera, gure web
orrian : www.caue64.fr, Ressources en ligne / Expos
itinérantes atalean.

Han, 9 liburuxka pedagogiko aurkituko
dituzu, non Pirinio Atlantikoetako ohiko
bizileku mota desberdinak zehazki
deskribatuak baitira.

